

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2005EKO MAIATZA


Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduera %3,3 hazi zen 2005eko maiatzean

2005eko lehenengo bost hilabeteetako bilakaerak, aurreko urteko aldi berberaren aldean, %1,4ko hazkundea izan zuen

EUSTATEN datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2004ko maiatzarekin erkatuta %3,3 hazi zen 2005eko maiatzean. Urteko lehenengo bost hilabeteak aintzat hartuta, industri jarduerak aurreko urteko aldi berean baino %1,4 gehiago hazi ziren.

2005eko maiatzean, eta aurreko urteko apirilaren aldean, EAEko industri produkzioa egonkor mantendu zen (%0,0ko hazkundearekin) baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

**Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen
urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka**



(*) 2005eko apiril-maiatzeko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektoreen araberrako bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusien sailkapena kontuan hartuta, 2005eko maiatzeko indizearen bilakaerak (2004ko maiatzaren aldean) ikur ezberdinak izan zituen. Ekipamenduko Ondasunek eta Tarteko Ondasunek urte arteko %8,7 eta %2,5eko hazkundea izan zuten, hurrenez hurren. Aitzitik Energia %0,4 gutxitu zen. Kontsumo-ondasunak ere gutxitu ziren, %0,1; baina industri sektore nagusi honen bi osagaiek urte arteko bilakaera dibergenteak izan zituzten: kontsumo-ondasun iraunkorrak %0,4 igo ziren eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrak %0,3 jaitsi ziren.

2005eko lehenengo bost hilabeteetan Ekipamenduko Ondasunak %4,8 hazi ziren, Tarteko Ondasunak %0,6 igo ziren eta Energiak %1,3 egin zuen behera. Kontsumo-ondasunak ere %1,1 jaitsi ziren, Kontsumo-ondasun iraunkorrek (%-1,0) eta Kontsumo-ondasun ez iraunkorrek (%-1,1) behera egin zutelako. Datu hauek guztiak, betiere, 2004ko lehenengo bost hilabeteetakoekin alderatuta daude.

2005eko maiatzeko hil arteko aldaketa, 2005eko apirilaren aldean, positiboa izan zen Ekipamenduko Ondasunei (%2,4) eta Energiari (%0,4) dagokienez. Tarteko Ondasunek, ordea, ez zuten aldaketarik izan (%0,0). Alabaina, Kontsumo-ondasunen hil arteko tasak %3,0 egin zuen behera; horien artean, Kontsumo-ondasun iraunkorrek %-2,2 egin zuten behera eta Kontsumo-ondasun ez iraunkorrek %-3,4.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak ezberdinak izan ziren hiru lurraldeetan. Gipuzkoan %7,0 igo zen eta Araban %4,4, baina Bizkaiko maiatzeko urte arteko tasak %0,4 egin zuen atzera. Urteko lehenengo bost hilabeteetako metatuak bilakaera positiboa izan zuen Gipuzkoan (%2,7) eta Bizkaian (%1,1); Arabak, aldiz, aldaketa negatiboa metatu zuen (%-0,3).

2005ko maiatzeko hil arteko hazkunde-tasek (urte bereko apirilaren aldean) ikur positiboa izan zuten bi lurraldetan: Araban %1,8 hazi zen tasa hori eta Gipuzkoan %0,7, baina Bizkaiko hil arteko aldaketak %-1,6ko beherakada izan zuen.

**Taula: 2005EKO MAIATZA. Euskal Autonomia Erkidegoko
Industri Produkzio Indizearen aldaketa-tasak (%)**

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	mai05/mai04	At/At-1 (1)	mai05/mai05	api05/mar05
Indize orokorra: Euskal AE	3,3	1,4	0,0	3,1
Araba	4,4	-0,3	1,8	3,5
Bizkaia	-0,4	1,1	-1,6	3,3
Gipuzkoa	7,0	2,7	0,7	2,6
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-0,1	-1,1	-3,0	7,5
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	0,4	-1,0	-2,2	8,2
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-0,3	-1,1	-3,4	7,2
Ekipo-ondasunak	8,7	4,8	2,4	0,1
Bitarteko ondasunak	2,5	0,6	0,0	1,8
Energia	-0,4	-1,3	0,4	10,2

(1) t urteko urtariletik azken hilerako arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberarekin erkatuta.

Iturria: Eustat

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp